

ASTEARTEA

2016/12/20
4. urtea, 599. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

Emakumeen jabetzaz, gaur, Berastegin

Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu aste honetarako, tartean, herri batzarra izango da // **3**



ITZEA URKIZU

PILOTA KIROLA ETA FESTA

Txapelketa Herrikoia eta Gipuzkoako Pilotari federatuen arteko finalak jokatu ziren, Tolosako Beotibar pilotalekuan izan zen Emakumea Pilotari Jaiaren barruan // **6**

Plaza eta kale hutsik ez, Tolosako urteko azken azoka berezian

Gabonetako Azoka Bereziak ia Tolosa guztia hartu zuen postu ezberdinekin eta dena alde izan zuen; jendeak bikain erantzun zuen // **4**



Tolosak jendetza hartu zuen, larunbatean. I. URKIZU

GOXOTEGIA

ROUTE 33 GOURMET

1933 2012

www.hogeitahamahiru.com

Bazurka industrialdea, 1. zbkia
20260 Alegia • Tel.: 943 698 604

GOURMET OKINDEGIA
GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

Iribarre	Pressto	Stylo berri
943 69 86 31	943 69 86 17	943 69 86 18

Bazurka industrialdea • ALEGIA

Kartzela sistema heteropatriarkatuaren tresna denez, egitura patriarkala dauka: gizonek gizonentzat egin dituzte. Ondorioz, emakumearen egoera are gogorragoa da bertan.

Kartzelak gizon izena dauka

Ane Urkola Tolosa

Emakumea eta kartzela hitzaldia antolatu zuten aurreko astean Tolosako Gazte Asanbladak eta Tolosako Neska Taldeak, Tolosako Kultur Etxean. Elena Urdangarinek eta Gotzone Ijurkok hitz egin zuten; Urdangarin espetxean egon zen urtebete eta lau hilabetez; Ijurkok, berriz, harreman handia izan du espetxearekin. Jokin Aranalderen bikotekidea da: hainbat urtez ihesean egoteaz gain, espetxean ere egondakoa da. Ibon Aranalde semea ere atxilotu egin zuten, eta Maite Aranalde alabak 11 urte daramatza espetxean. Beren esperientziak oinarri hartuta, emakumeek kartzelan pairatzen duten «zigor bikoitza» izan zuten hizpide.



Irudian, 'Emakumea eta kartzela: kartzela eredu patriarkala aztergai' hitzaldia, Asteasun. JON MIRANDA

TORTURA SEXISTA

Elena Urdangarin 1984ko urrian atxilotu zuten: «Goizaldeko 02:00etan etorri ziren etxera, ateak hautsiz. Bakarrik nengoen etxean, bi semeekin». Momentu horretan sortu zen bere lehen ezinegona: Zer gertatuko da haurrekin? «Bizilagunei oihuka hasi nintzen norbait haurren kargu egin zedin: bakarrik geratu ziren etxean».

Atxilotu zutenean, tortura gorrak jasan zituen: «Golpeak etengabeak ziren, ez zidaten atsedeen hartzen uzten». Emakume izateagatik, tortura sexista ere jasan behar izan zuen: «Pertsona eta emakume moduan

deuseztatzea zen beren helburua. Irain matxistak etengabeak ziren, eta bortxatu egingo nindutela esaten zidaten. Behin eta berriz aipatzen zidaten nahi zuten guztia egin zezaketela nirekin, ez zela inor ohartuko».

Jasandako torturen inguruan hitz egitea «asko» kostatzen da: «Sekulako orbaina uzten du horrek buruan, eta zaila da horri aurre egitea». Torturaren beldurrarengatik, hain zuzen, sekulako «lasaitua» hartu zuen Gotzone Ijurkok Maite Aranalde Frantziako Estatuan atxilotu zutenean: «Banekien ez zutela torturatuko behintzat», adierazi zuen.

ESPETXEA, SISTEMA PATRIARKATUAREN TRESNA

Espetxea sistema patriarkatuaren beste tresna bat denez, egitura patriarkala du: «Gizonek gizonentzako eraikitako egiturak dira», azaldu du Gotzone Ijurkok. Jendarteari iruditzen zaio emakumeek eta gizonen azpiegitura berak (gimnasioa edo kiroldegia, esaterako) dituztela kartzelatan; emakumeek, ordea, debekatuta dute baliabide horiek erabiltzea. Kartzelatan jasotzen dituzten formakuntzetan ere alde nabarmena da, eta ikastaro batzuk (soldadura, esaterako) gizonen soilik zuzendutakoak dira.

Emakume eta gizon askok guraso izateko hautua egiten dute kartzelan dauden bitartean. Emakumeek, ordea, zailtasun handiak izaten dituzte horretarako: «Gizonezko preso ugari haurrak izan dituzte espetxean zeuden bitartean, bazekitelako

kanpoan zegoen pertsonak –emakumea kasu gehienetan– oso ondo zainduko zuela haurra. Jendarteak berekoitza hartzen ditu hautu hori egiten duten emakumeak», azaldu du Ijurkok.

«Bortxatu egingo nindutela esaten zidaten behin eta berriz»

«Gizonek gizonentzat egindako egitura patriarkalak dira espetxeak»

Horretaz gain, kartzelak oztopo ugari jartzen dizkie ama izan nahi duten emakumeei, bi protagonisten hitzetan. Espainiako Estatuko kartzelatan hiru urte arte egon daitezke ziegetan beren haurrekin; Frantziako Estatuan, aldiz, 18 hilabete. «Epe hori bete ondoren, haurrek kartzelatik atera behar izaten dute eta beste senideren batekin utzi. Banatze hori oso gogorra da amarentzat zein haurarentzat», nabarmendu du Ijurkok.

Urdangarinen hitzetan, ez dizkiete nahikoa baliabiderik eskaintzen hurrei kartzelatan: «Ez dago intimitaterik haurrare-

kin egoteko, ez leku itxirik, eta jostailurik ere ezin da sartu ziegan», azaldu du Urdangarinek. Laguntza medikoa ere txarra da orokorrean, baina azpimarratu dute are txarragoa dela emakumearentzat: «Ez dago pediatriarik. Haur hori gaixotzen bada, amaren baldintza berdinetan dago. Ez diote jaramonik egingo; edozer gauza gerta dakioko umeari, eta larritasun hori amak sufritzen du».

Euskal Herriko historian pertsona ugari espetxeratu dituzte. Espetxeetaz hitz egiterakoan, ziegetan dauden gizonentzako presoak etortzen dira burura, batez ere. Ahaztu egiten dira espetxeratu zituzten emakumeak, gizon horien zaintzaz arduratu direnak edota beren haurrak hezi eta hazi dituztenak. Denon ardura da emakume horien historia ez ahaztea eta egindako lana errekonozitzea.

NEKANE LIBRE EGUNA OSPATU ZUTEN ASTEASUN

Aizan Talde Feministak, Onddo Gazte Asanbladaren laguntzaz, 'Nekane libre' eguna antolatu zuen larunbatean. Goizean, Joseba Txapartegi Nekane Txapartegiren anaiak hitzaldia eskaini zuen bere egoeraren inguruan. Ondoren, Txapartegiri gutuna bidaltzeko aukera izan zen, baita pintxo beganoak jatekoa ere. Arratsaldean, *Emakumea, migrantea eta preso* hitzaldia eskaini zuen Katia Reimbergék. Katiak urtebete igaro zuen espetxean eta atzeritar preso izateak dakarren egoeraren inguruan hitz egin zuen. Elena Belokik eta Oihana Etxebarrietak, preso eta preso baten senideak, kartzelan erreproduzitzen den eredu patriarkala aztertuzuten, norberak bere ikuspuntutik. Poteo musikatu eta manifestakzioa ere egin zituzten.

Zuricheko espetxean dago Txapartegi, Espainiak egin duen estradizio eskaerari Suitzak zer erantzun zain. Espainiako Poliziaren eskuetan zegoela, jasan zituen bortxaketa eta torturen frogak aurkeztu ditu eta asilo politikoa eskatu dio Suitzari.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Aurkitutakoak

Belarritakoa. Zilarrezko belarritako bat azaldu da Tolosako San Esteban Auzoko bihurgunean. Sagar forma dauka, eta galdu duena TOLOSALDEKO ATARIAKO egoitzara gerturatu dadila.

Emakumeen jabetzeaz hitz egiteko tailerra, gaur

Berastegiko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu; herri batzarrarekin bukatuko da egitaraua

Rebeka Calvo Berastegi

Berastegiko udal gobernuak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako; tartean jabetze eskolak zer diren azaltzeko tailerra edo indarkeria sexistaren prebentzioa nerabezaroan hizpide duena.

Gaur, asteartea, jabetze eskolak zer diren azaltzeko tailerra egingo dute. Herriko emakume guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira bertan emakumeen jabetzea zer den azalduko baitute. Tailerra 17:00etatik 19:00etara izango da, udaletxean.

Bihar berri, desfibriladorea nola erabili ikasteko tailerra egingo dute. 18:30ean herriko elkarteetako kideei zuzendutako saioa egingo dute eta 19:30ean,



Aparkaleku azpiko lokalean egin dute Elkartasun Azoka. I. SAIZAR

herriar orori zuzendutakoa, udaletxean.

Ostegunean *Indarkeria sexistaren prebentzioa* nerabezaroan ikastaroa eskainiko dute, nerabezaroan dauden seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta, 18:00etatik 20:00etara, udaletxean. Egitarauarekin bukatzeko, herri batzarra egingo dute ostegunean, 21:00etan pleno aretoan. 2017ko aurrekontu eta egitasmoak eta hirigintza lanak izango dituzte hizpide, besteak beste.

Bestalde, asteburuan zehar Elkartasun Azoka izan dute berastegiarrek. Herriarrek bildutako bigarren eskuko materialekin egin ohi dute azoka eta biltzen duten dirua Etiopiako Wukroa bidaltzen dute.

Aurten 566 euro jaso dituzte eta antolatzaileek parte hartze handia nabarmendu dute. «Oso pozik gaude jasotako erantzunarekin, bai gauzak ekartzerakoan eta baita erosteko garaian ere», esan dute.

Aralarren 2019 arte egin asmo dituzten pistak, eztabaidagai

Landarlan elkarteak informazio bilera egingo du ostegunean, Tolosako Bidaiarien Txokoan, 19:00etatik aurrera

Erredakzioa

Enirio-Aralar Mankomunitateko kide direnek bilera dute gaur, Ordizian, 19:30etik aurrera. Besteak beste, 2015-2019 urte bitarteko pista berrien inguruko eztabaida izango dute hizpide, eta hori dela eta Landarlan ingurumen elkarteak orain gutxi elkarrizketa eta eztabaidarako egin dako deia berretsi du.

Landarlanek Goroskintxuko eta Saltarriko pista proiektuak bertan behera uzteko, pista berriak onartu aurretik Ekintzen Egitasmoa berrikustea, mankomunitateko informazio guztia webgunean jartzea eta mankomunitateko lan batzordea desgitea eskatzen du. «Ez dugu gure eskaeren erantzunik jaso, ez eta

oraindik ere bukatuta dagoen Goroskintxuko pistaren ingurumen jarraipenerako programa ere. Berritro diogu, elkarrizketa eta eztabaidara zabalik gaudela, Aralarren interesak dituzten guztiak. Eta edozein erabaki hartu aurretik, herriarroi informazioa zabaldu eta parte hartzeko bideak mankomunitateak ireki behar dituela», esan dute.

Horiek horrela, gaurko bilera aitzakia hartuta elkarretaratzea egingo du Aralar Bizirikekin batera 19:00etatik aurrera, Ordizian, udaletxearen aurrean. Era berean, abian duten informazio kanpainaren barruan informazio bilera bat egingo dute ostegunean, 19:00etatik aurrera, Tolosako Bidaiarien Txokoan.

Joxe Mari Olarrarekin solasaldia, ostegunean

LIZARTZA // Hainbat euskal preso eta iheslari ohik abiarazitako *Kalera, kalera!* ekimenaren barruan, Joxe Mari Olarrarekin solasaldia antolatu dute Lizartzan. Ostegunean, hilak 22, izango da, 19:30etik aurrera, Gunean. Joxe Mari Olarra billabonatarra 18/98 auzian zigortu zuten eta kondena osorik bete zuen. 13 urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta ondoren zortzi urte eta erdira jaitsia zioten kondena. 2014ko azaroan utzi zuten aske.

Belauntzan ere aterako dira kantatzera

BELAUNTZA // Abenduaren 24an abesten aterako dira ere, Belauntzan. Artzain-andrez jantzita joango dira baserri kantuan eta horretarako 15:00etan elkartuko dira herriko taberna inguruan. Arratsaldea abesten eman eta gero, 18:00etan egingo diote harrera Olentzerori. Herriko taberna inguruan izango da hori, eta opariek itxarongo diote. Ondoren merienda banatuko dute bertaraten direnen artean.

Martxoaren 19ko galdeketaarako urratsak

Gure Esku Dago ekimeneko kideak herriz herri dabilta herriarren babesa sinadura bidez biltzen

Erredakzioa

Martxoaren 19ko galdeketa presatzen dabil Gure Esku Dago ekimena. Herriz herri ari dira herriarren sinadurak biltzen eta azken egunetan, Ibarran, Elduainen, Bidania-Goiatzen eta Anoetan egon dira.

Ibarran ostegun iluntzean Giltzarria adierazpena aurkeztu zuten. Bidania-Goiatzen asteburuan zehar pilota eta pala partidak, afari-merienda, karaokea eta dantzari zein trikitilariak izan zituzten. Elduainen igandekoa izan zuten herriarren babesa jasotzeko eguna. Preso dagoen Anabel Eguesen aldeko argazkia ere atera zuten. Eta Anoetan ere asteburu osoan zehar egon dira plazan, informazioa partitzen.



Herriarren sinadura bota ostean, hamaiketako egiteko aukera izan zuten. I. S.



Bidania-Goiatzen Asteburua Giltzarriren barruan argazkia atera zuten. ATARIA

sarrerak

Atarikideentzat sarrera pareak dugu

ENE KANTAK ASTONAUTAK

Abenduak 28, asteazkena
17:00etan
Tolosako Leidorren

Zozketetan parte hartzeko OSTEGUNA 13:00ak arte:
943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Guztia alde izan zuen, joan den asteburuak, agenda hitzorduz josteko; Tolosa belaunikatu egin zitzaion urteko azken azoka bereziari, eta Ibarran ere jakien inguruan ibili ziren dantzan.

Txapela kentzeko moduko asteburua



Trianguloa plazako karpan gazitik zein gozotik dastatu eta eskuratzeko aukera izan zen, urtero bezala; animaliek estreinakoz hartu dute, aurtan, Alondegia plaza. I. URKIZU

Itzea Urkizu Arsuaga Tolosa

Ez zen plaza librerik geratu, larunbatean, Tolosan, Gabonetako Azoka Bereziaren aitazakian; jaki, jantzi, jostailu, sendagai, barazki eta animalia saltsa izan zen, jende uholdearen errudun.

Izan ere, egunak, eguraldiak, tenperaturak eta giroa, faktore guztiek, bat egin zuten, Gabonetako Azoka Berezia, beste behin, urteko azoka jendetsuena bilakatzeko. Eguberrien atariak kolore berezi batekin margotu ohi du, beti, jaien atariko larunbata eta, aurtan, margo horrek dirdira ere egin du.

Alondegia plazan estreinakoz animaliak izan ziren ikusgai,

hainbat jakirekin batera. Haur eta gaztetxoentzat indar erakargarlea izan zen abereena, noski, eta zail suertatu zitzairen plaza hartatik mugitzea. Beotibar frontoiaren ondo-ondoan, ordea, larunbateko azokako erreginak pasatu zuen goiza: txerriak, bere txerrikumeekin.

Artxibo atzeko guneaz harago, jai bezperetako jaia San Frantzisko pasealekura, Triangulora, Zerkausira eta Plaza Zaharrera ere zabaldu zen, eta zalantzarik ez da: orduak motz geratu zitzaizkien herritarrei, azoka bereziko tentazio guztien aurrean aukeraketa egiteko.

Produktu eta postu horien guztien arteko zirrikituak dultzaina doinuek girotuta, tolosar askok ekin diete jada Gabonei.



BIKOTE PERFEKTUAREN BILA IBARRAN

Gilda eguna izan zen, larunbatean, Ibarran, eta kazetari, sukaldari eta kritiko talde bat pintxo horrentzat edaririk aproposena zein den erabakitzen aritu ziren. Konbinazio guztiak dastatu eta gero, gildak eta bermut gorriak bikote perfektua osatzen dutela erabaki zuten. J. MIRANDA

Sustapena Abenduak 9 - Urtarrilak 5

izarrez beteriko gabonak

Musika, magia eta espektakuluen izarrek beteko dituzte Tolosako kaleak

1^{er} GAINERA

6.000€

saritan

100€ko 60 erosketa txeke



**Tolosa
& Co**

Tributo a Fito & Fitipaldis

Bualá
Lauroba

Dirt, jump-trial
Baobas

Mago Eriz

DJ Josu

Kantu kolore
Deabru beltzak

Zapatos en el aire



19. URTEBETETZEA

Urteroko moduan, Bonberenean txarangak doinuz girotu zuen Tolosa, bere urteurrena ospatzeko; 19.a zuten. I. URKIZU



AZKARATEREN ASKATASUNARI DEI

Manu Azkarate tolosarra joan den astean atxilotu zuten Marsellan (Frantzia), eta larunbatean manifestazioa izan zen Tolosan, haren askatasuna eskatzeko. I. URKIZU



OHOLTZA MOREA

Tolosako Batxilergoko ikasleek 'Hi haiz, hi' jaialdia eskaini zuten, ostiralean, matxismoaren aurka. I. URKIZU



'KALERA, KALERA' EGUNA IBARRAN

Egun osoko egitaraua izan zen larunbatekoa, eta eguerdian izan zen ekitaldi nagusia; Gari-koitz Ibarluzeari harrera ere egin zioten. Ondoren, bazkaria izan zuten. J. MIRANDA



MEMORIA DOINUAK

Astebeteko egitaraua osatu zuten 'Txilduen Oihartzunak' proiektuko sustatzaileek, eta larunbatean biribildu zuten, Andoaingo txaranga miliziarrekin. I. URKIZU



SALATZEKO DEIA, ZERKAUSITIK

Sare Herritarrak argazki jendetsua osatu zuen, larunbatean, Tolosako Zerkausian, eta datorren abenduaren 24an, 18:45ean hasiko den manifestazio isilean parte hartzera deitu zuten eskualdeko gizarteak. I. URKIZU

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

14. jardunaldia

Aurrera-Lauburu 2-1

Sailkapena

1. Zierbena 35p
2. Colo Colo 33p
9. Lauburu Ibarra 18p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (9.)-Colo-Colo (2.)

Eskubaloia

ZILARREZKO OHOREZKO MAILA

15. jardunaldia

Alcobendas-Tolosa CF Esk. 35-24

Sailkapena

1. Teucro 25p
2. Palma del Rio 24p
15. Tolosa CF 3p

Hurrengo jardunaldia

Barcelona B (5.)-Tolosa CF (4.)

Futbola

HIRUGARREN MAILA

18. jardunaldia

Tolosa CF-Durango 1-3

Sailkapena

1. Alaves B 40p
2. Vitoria 37p
9. Tolosa CF 24p

Hurrengo jardunaldia

Balmaseda (10.)-Tolosa CF (7.)

ERREGIONAL PREFERENTEA, BIGARREN MULTZOA

14. jardunaldia

Intxurre-Urola 1-2

Tolosa CF-Zestoa 0-1

Sailkapena

1. Bergara 32p
7. Tolosa CF 19p
16. Intxurre 7p

Hurrengo jardunaldia

Getaria (14.)-Tolosa CF (7.)

Soraluze (3.)-Intxurre (16.)

LEHEN ERREGIONALA, LEHEN FASEA, 5. MULTZOA

14. jardunaldia

Billabona-Lazkao 9-3

Danena-Segura 3-4

Sailkapena

1. Ordizia 31p
2. Billabona 22p
7. Danena 6p

Pilota

BINAKAKO TXAPELKETA

Lehen Mailako, 3. jardunaldia

Irribarria-Rezusta 22

Mendizabal III-Tolosa 17

Elezkano II-Zabaleta 22

Artola-Albisu 11

Sailkapena

1. Irribarria-Rezusta 3-0
3. Artola-Albisu 2-1
7. Altuna III-Barriola 1-2

Saskibaloia

EBA Liga

11. jardunaldia

Gallofa-TAKE 69-61

Sailkapena

1. Cantabria 22p
13. TAKE 12p

Hurrengo jardunaldia

TAKE (13.)-Cantabria (1.)

Emakumea Pilotari jaia ospatu zen Beotibarren

Egun osoko festari Txapelketa Herrikoiarekin eta Gipuzkoako Pilotari federatuen arteko finalarekin eman zitzaion amaiera



Emakumea Pilotari jaialdiko parte hartzaileek talde argazkia egin zuten. J.MURUA

Erredakzioa Tolosa

Tolosa CF elkarteak eta Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatu zuten larunbateko eguna Tolosako Udalaren laguntzarekin. Goizeko 10:00etan hasi zen Beotibar pilotalekuan Txapelketa herrikoa. Arratsaldean jokatu zen finala ia sei orduko pilota saioa eta gero. Ainara Azpiazu eta Josune Urruzola hernaniarren eta Amaia Vicario eta Ane Arregi donostiarren artekoa izan zen. Azken hauek irabazi zuten hamar minutuko saioa, 12 eta 4.

BIGARREN MAILAKOEN FINALA

Rodas berrobitarra eta Arrillaga zubietarra aritu ziren gorritz, eta urdinez Otaegi donostiarra eta Erasun zizurkildarra. Bi atzelarien arteko norgehiagoka gogorra iragartzen zen, eta parekotasun handia aurreko koadroetan. Baina Arrillagak agindu zuen ia partida osoan, oso aukera gutxi emanez aurkariei, eta beren senetik ateraraztea lortu zuen bo-

lada batean. Nabarmendu behar da Rodas berrobiarrak egin zuen lana ere. Itxaso Erasun izan zen, beharbada, bere maila eman ezinean ibili zena; jakina da, ordea, aurkaria bolada onean eta dena nahi bezala ateratzen zaiola ari denean zaila dela aurre egitea. 30 eta 16 irabazi zuten Rodas-Arrillagak, eta ondo islatu zuen markagailuak frontoian ikusia.

FINAL NAGUSIA, GOGORRA ETA IKUSGARRIA

Otaegi-Mendizabal, asteasuarra eta anoetarra hurrenez hurren, eta Garmendia-Eizmendi alegiarrak eta aiarra izan ziren aurrez aurre lehen mailako finalean. Sailkapeneko ligaxkan ikusitakoa ikusirik, partida oso estua espero zen eta baita gertatu ere: gogorra eta estua. Beraiek nahi baino akats gehiago egingo zituzten, baina halere, emozio eta kalitate handiko tanto asko jokatu zituzten, eta zaleen txalo zaparrada ugari eragin zuten.

Partidari hotz antzean ekin zioten Garmendia-Eizmendik, batik bat Garmendiak, eta seizazpi tanto atzetik ziren ohartzeko (13-6). Hemendik aurrera

gauzak aldatzen hasi ziren, joko taktika aldatu zuten alegiarrak: berau gehiago sartzen eta arriskatzen hasi zen, eta tantoak beren aldera erortzen hasi ziren. Mendizabal gehiago mugiarazten ari ziren orain, jokoan agintzen, zuloak irekitzen eta, batik bat txokoan, aukerak aprobeztatzen. Irati Otaegi bere aldetik oso ondo egiten ari zen bere lana, defentsan zein erasoan, baina ezin zion eman Mendizabali, Garmendiak Eizmendiri ematen zion laguntza guztia. Hala iritsi zen partidako lehen berdinketa: 24na. Gero etorri ziren 25, 26 eta 27nakoak. Bazirudien nekeak gehiago eragin behar ziola beterranoenari, Mendizabali. Baina hemen azaleratu zen, berriro, bere izaera irabazlea: ez zuten oparirik egin eta aurkariak arriskatzera behartu zituzten, zorte askorik gabe, eta txokoan airez goxo utzitako pilotakadarekin anoetarrak eman zion amaiera partidari: 30 eta 27.

Emakume pala jokalarien arteko festa eta ikuskizun bikaina izan zen larunbatekoa, bertaratu ziren ikusleek gozamenez hartu zutena.

Arruabarrena Espainiako txapeldun

Erredakzioa Tolosa

Tolosarra Sara Sorribesiri irabazita Espainiako txapelduna da. 2014ean lortutako saria berriro errepikatu du beraz Lara Arruabarrenak. Honela, urtea WTA-ko ranking-ean 66. postuan amaituko du tenislariak.

Manacorren lehiatutako txapelketan Olga Saezi (7-5, 6-1), Silvia Soleri (6-1, 6-1) eta Sara Sorribesi (6-1, 6-0) irabazi behar izan die tolosarrak.

Hilberriak eta urteurrenak

Francisca Erdocia Pellejero

(Juan Fernandezen alarguna)
Abenduaren 18an hil zen, 94 urte zituela.

-Goian bego-

Seme-alabak: Eduardo eta Trini Martin, Jose Luis eta Mila Elola, Gema eta Manuel Gonçalves (†), Inmaculada (†), Jonan eta Mertxe Amondarain; bilobak: Gema, Edorta, Amaia, Aritz, Asier, Leire, Irati, Bittor, Miren; birbilobak: Endika, Manex, June, Aratz, Ilargi; ahizpa: Josepi (†); zaintzailea: Yinda Mendoza; eta gainerako ahaideak.

Arren eskatzen dizute otoitz bat haren arimaren alde, eta etor zaitezela hileta elizkizunetara. ASTEARTEAN izango dira, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Oharra: Gorputz beila Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da, ASTEARTEA 11:00ak arte.

TOLOSA, 2016ko abenduaren 20a



EGUBERRITAKO SARIA

Susana Davila eta Mikel Alvarez izan dira Zizurkilen txapeldun. Infantil mailan Jon Kepa Kortajarena eta Xabier Amorrizek Euskadi infantileko eta 15 urtez azpikoen markarik hoberenak egin zituzten, hurrenez hurren. Davilak eta Alvarezek aurreko nabarmendutako kirolarien saria jaso zuten.

Amaitu da VI. Zizurkilgo Pilota Txapelketa

Ziotza Pilota Elkartek antolatuta benjamin, alebin, infantil eta kadete mailakoen finalak jokatu ziren igande goizean

Irati Saizar Zizurkil

Benjaminetan, eskualdeko bi bikote izan ziren igandean Intxaur frontoian: Gorostiaga-Murua al-tzotarrak eta Meulman-Iparragire billabonatar-adunarrak. Bigarrenok irabazi zuten 16 eta 13. Oso partida polita izan zen. Hasieran abantaila handia hartu zuten gero irabazle izan zirenek; gero estutu egin zen partida, 14-13, baina beraiek iritsi ziren amaierara. Murua eta Iparragire nabarmendu ziren.

Alebinetan erraz irabazi zieten Goikoetxea (Erreterria) eta Gartzia (Lazkao), 16-8, Etxeberria (Goizueta) eta Landa de Marcosi (Oartzun).

Infantiletan ere, partida erraz menderatu zuten Sein eta Aburuza oiartzuarrek. Izugarritzko bikotea, indar eta talentu handikoa osatzen dute, aurkari gutxi dute kategorian, eta 18-4 irabazi



Jokin Altuna eta Jon Erasunek banatu zituzten sariak igandeko finalean. I.S.

zieten Uitzi-Oiartzabal hernaniar saiatuei.

Kadeteetan, ordea, partida borrokatua eta bikaina ikusi zen. Aurrera-Tolosako bi pilotari, Altuna-Etxeberria, aritu ziren Oskoz eta Agirre nafarren aurka. Hotz antzean hasi ziren nafarrak eta abantaila hartu zuten hasieran bertakoek. Baina partida erdirako gauzak berdindu egin ziren eta aurea hartu zuten nafarrek. Aurrera-Tolosakoek ez zuten amore eman eta zein baino zein aritu ziren azkenera arte:

17na, 18na, 19na, 20na eta, azkenean, 22 eta 20 irabazi zuten Aitor Altuna tolosarrak eta Mikel Etxeberria albiztuarrak. Laurak ondo, baina albizturtarraren joko nabarmendu behar dira.

Bukatzeko paleta pilota partida borrokatua eskaini zuten Osa-Gelbentzu zizurkildarrek eta Algorta-Gorostegi hernaniarrek. Bigarrenok irabazi zuten 22 eta 19.

Amaieran sariak Jokin Altuna eta Jon Erasunen eskutik jaso zituzten parte hartzaileek.

Irigoienek jantzi du Harri Handien txapela Asteasun

Irati Saizar Asteasu

Guztira 60 altxaldirekin (9.300kg) –errekorra 62 altxaldirekin dauka–, Aimar Irigoien errezildarrak jantzi du zortzigarren aldiz txapela. Bigarren postuan, azken bi urtetan txapeldun izan den Jokin Eizmendi geratu zen eta jarraian, Aimar Galarra-ga, Imanol Larramendi eta Goenatxo III.a geratu ziren.

Bost harri-jasotzaile gipuzkoarrek 3 minutuko txandak egin zituzten honako harri hauekin: 200 kiloko errektangularra. 175 kiloko zilindroa, 150 kiloko kubi-koa eta 125 kiloko bola.

Asteasuko Usabarri frontoian izan zen Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa. Aimar Irigoienek zortzigarren aldiz jantzi du txapela.



Irigoien txapelduna gainerako parte hartzaileekin txapelketaren amaieran. I.S.

Ez da juxtua!

Harmailetatik
Jexux Murua

Hirugarren jardunaldian sartu da txapelketa nagusia. Lehen jardunaldian Jokin Altunaren lesioaren albiste txarra izan genuen, eta

hirugarren honetan Iñaki Artolaren lesioarena izan dugu; honek, partida erdijokatua zela utzi behar izan zuen bertan behera ezker besagainean zaintiratu gogor bat izanda. Hari lau asteko atsedena agindu zioten, aste pare bat barru itzul daiteke, eta honi sei-zortzikoa iragarri diote. Kirolaren zati da lesioa, baina go-

gorra izan behar du zulo batetik atera eta beste batean sartzea Iñakiri gertatu zaion bezala: hiru hilabete igaro lesio bat sendatzen eta, berriro minak alboratu eta joko hartzen eta gozatzen hasi denean, hau! Ez da juxtua! Entzun diogu alegiarrari aitortzen «eroa bezala» joan zela utzi beharreko pilota jasotzera; zenbatetan egin ote du gauza bera minik hartu gabe? Gerta zitekeen, gertatu da eta ez dauka bere burua zertan madarikatu. Ondo sendatzea tokatzen da.

Artola eta Altunaren lesioa baino ohikoagoa den eskuetako minagatik, Barriolak duenarengatik oraingoan, etorri zaio Xabier Tolosari goi mailan aritzeko aukera. Poztekoa behar luke, eta pozik izango da bera aukera hau eman diotelako. Baina ez dakit bada nik! Honelako neurketa batek eskatzen duen maila eta suposatzen duen konpromisoa kontuan izanda, deigarria da, Tolosan abenduaren 6an jokatu zuen partida kontuan hartuta, Xabierrek bost partida jokatu

izana hamar egunetan: Tolosa, Donostia, Lekeitio, Urretxu eta Oñati; txapelketakoak Donostia eta Oñatikoak. Ez du bada oso zentzuzkoa ematen kirol ikuspegitik begiratuta? Ez dirudi bada gorputzaldi biziarekin iristeko era aproposena denik? Ez du bada ematen pilotari guztiak baldintza berdinetan, ezta berdintsuetan ere, aritzeko artea denik? Ez du bada serioa ematen? Ez, ez du ematen, ez da-eta! Ez da juxtua eta, niri behintzat, ez zait serioa iruditzen.

Hilberriak eta urteurrenak



Jose Mari Olamusu Etxaide

JAUNA


AMIANTOAREKIN LAN EGITEAGATIK HILA
2016ko Abenduaren 19 an hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Emaztea: Asun Jauregui; seme-alabak: Begoña eta Mikel, Iñaki, Edurne; bilobak: Nora, Maddi eta Iker, June, Nahia Omaira; anai-arrebak: Julian eta Consuelo (†), Paula (†) eta Juanito (†), Joxe (†), Valentina eta Emilio (†), Maritxu eta Julian (†), Fermin (†), Teresa eta Marcelino, Luisita eta Julian (†); ezkon anai-arrebak: Xixili (†) eta Antonio (†), Eugenio (†) eta Anttoni (†), Joxepi (Frantziskotarra), Mari Kruz eta Juan Antonio; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte, ASTEARTEA arratsaldeko ZAZPIETAN IBARRAko SAN BARTOLOME parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
HELBIDEA: San Inazio auzoa.
OHARRA: Gorputz beila Tolosako FUNERARIA VASCONGADA TANATORIOAN egongo da, ASTEARTEA arratsaldeko 16:30ak arte.

IBARRA, 2016ko abenduaren 20a



Jesusa Goenaga Etxezarreta

(Juan Ramon Iturrioz en alarguna)

Atzo hil zen 97 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Seme-alabak: Inazio eta Mariasun Amundarain, Jose Mari eta Lourdes Ezeiza, Patxi eta Arantxa Ezeiza, Juan Ramon eta Rosi Mendizabal; bilobak: Olatz eta Jabier, Larraitx eta Gorka, Xabier eta Fabiana, Aloña eta Xabier, Iñaki eta Iratxe, Arantza eta Roland, Iñigo, Beñat; birlobak: Imanol, Alain, Julen, Igor, Gilen, Maren, Markel; Ane Portillo; ilobak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR ASTEARTEA arratsaldeko ZAZPIETAN ANDRA MARI JASOKUNDEAREN Parroki Elizan, gorpua aurrean dela, egingo den hileta-elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldez aurretik.

ITSASONDO, 2016ko abenduaren 20a
Helbidea: Lore Txuri Etxea



ASTEARTEA, 2016KO ABENDUAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosa eta Uztaritzeren arteko senidetzearen aro berria

Tolosako alkate Olatz Peonek eta Uztaritzeko auzapez Bruno Carrerek bistarazi dute seinale berria, Tolosako herri sarreran

Jon Miranda Tolosa

Aurrez berdina egin zuten joan den azaroaren 23an Uztaritzen eta bertan izan ziren Tolosako udal ordezkariak. Larunbatean, berriz, Lapurdiko herriko udal ordezkariak eta hainbat herritar gerturatu ziren Tolosara ekitaldian parte hartu eta Gabonetako Azoka Bereziaren bueltan egun pasa egitera.

Tolosa eta Uztaritzeko udalek 1989an sinatu zuten senidetze hitzarmena, bi herrien arteko lotura bake eta adiskidetasunean sendotzeko eta elkarren arteko harremanak sortzeko arlo desberdinetan.

Hitzarmenak urte batzuk egin ditu dagoeneko, zehazki 27, eta bi udalek komenigarritzat jo dute hitzarmen hori gaur egungo errealitatera egokitzea. Euskal Herriko lurraldeen lankidetzaren eta kohesioa oinarritzat du hitzarmenak, biztanleen arteko harremanak sendotzeko, gure herriko errealitate ezberdinak



Uztaritzen jarritako seinale berdina jarri dute Tolosan ere, Amarotzen. J. MIRANDA

ulertzeko eta ideiak, esperientziak zein proiektuak sustatzeko bi herrien artean.

Eguneratu berri den hitzarmenaren lehen fruitua izan da herri bakoitzeko sarrera-irteeretan seinale berdina ezartzearena.

Olatz Peon Tolosako alkateak senidetze honen garrantzia azpimarratu zuen: «Aberasgarria da oso. Jada egun, bi herrietako hainbat eta hainbat elkartek harremana dute, eta hori 89an abiatu zen senidetzearen ondo-

rio izan da. Egun ere ikastetxeek badituzte proiektuak abian elkarrekin; azkena, memoriaren inguruan batera ikasleek egin duten lanketa».

BATZORDEAK SORTUZ LANEAN

Aipatutako helburuak betetzeko eta era eraginkorrean jarduteko, herri bakoitzak bere batzordea antolatu du. Batzorde horretan herriko elkarte ezberdinek parte hartuko dute. Udalekin lan egingo dute, beti ere, parekatzeari dagozkion jardueretan biztanleen parte-hartzea sustatuz eta egindako harremanak iraunkortuz; hori baita bere helburua.

Herri eta parekatze batzorde bakoitzak gizartea, kultura, kirola, hizkuntza eta ekonomiari lotutako biztanleen arteko harremanak sustatu eta sostengatuko ditu. Udal zerbitzuek laguntza logistikoa emango diete parekatze batzordeei, abian jarriko diren neurriak lankidetzaren hitzarmen honetan finkatuak dauden neurrian.

ZORION AGURRAK



Anabel herria zurekin!



Zorionak

Intza Egues Belauntzaran (Berrobi). Gaur 8 Urte.
Muxu handi bat denon partetik.

OSTEGUNA 20

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. *Altsasu 11k aske!* lelopean, elkarretaratzea egingo dute, Ibarako Gazte Asanbladak deituta, plazan.
Tolosa. Eguberrietako kontzertua eskainiko du, Laskorain abesbatzak, 19:30ean, Sakramentinoetan.
Zizurkil. Ekuatore Gineako ipuinak eta jokoak, Estrella Ndong eta Idoia Sanchezen eskutik, 17:30ean, Iriarte Kultur Etxean.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, teknologia ikasleekin, Oskar Tenarekin artearen txokoa, etalehiaketa, deitu 10:45etik 10:55era. Haritz Mujika *Kale Kantoitik*.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Tolosako albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.

20:00-20:30. **Kokondo.** Oskar Tenaren musika saioa.

28 KANALA

12:30. Ur eta lur.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Ikasgileatik.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

Gauetako.

Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EGURALDIA

GAUR



8° / 6°

BIHAR



10° / 3°